

PRENTSA OHARRA

Digitaria dua, OBF eta Sr. Wilson eta Lourdes Madow martxoko Art After Dark saioan

Martxoaren 13an, datorren ostiralean, **Digitaria** duoko kide Daniela Caldellas eta Daniel Albinati izango dira Museoko Atrioan 00:00etatik aurrera. Brasiletik datoz, eta 2004an sortu zuten taldea, *dance* musikaz esperimentatzeko; hasiera batean laukote ziren eta lehen diskoarekin — *Teen Years* (2006) Alemaniako Gigolo Records diskoetxeak kaleratutakoa— arrakasta handia izan zuten; ondorioz, Europatik eta Brasiletik bira egin zuten. Gerora duo bihurtu diren arren, hasierako filosofia gorde dute: “Mugarik gabeko musika elektronikoa. Sormenak eta sentipenek baino ez dute inporta; sortzeko ez dago araurik”.

OBF izango dira agertokian 23:00etan. Europako *dub* giroaren aitzindari dira eta Suitza eta Frantzia artean bizi dira. Soinu berezia sortu dute: *dub steppah*, *roots* reggaearen konpromisodun mezuak eta estilo askotako musika elektronikoa uztartzen dituzte. Arin saltzen dira haien diskoak eta balio handikoak izaten dira; *Wild* LPa argitaratzearekin batera munduko bira egin zuten. Museoan Sr. Wilsonekin batera izango dira; Sr. Wilson estatuko reggaearen ahots gailenetako bat da, etorkizun handia duena; estilo asko landu ditzake eta kontzientziadun letrak ditu bereizgarri. Europarako atea izan ditu hainbat diskoetxe eta lankide, tartean, OBF, Mungos HiFi, Blackboard Jungle eta beste asko.

Gaua hasteko **Lourdes Madow** izango dugu, Fever klubeko DJ egoiliarra eta Charada dendako arduraduna. Madow askotariko ekitaldietan ipini du musika: luxuzko dendan inaugurazioan (Boffi), Frank Gehryren urtebetetze-afarian Guggenheim Bilbao Museoan, Emakume Enpresarien Iberoamerikako XIX. Bileran, Charles Tanqueray-ren 200. urteurrenean Madrilen, Bilboloop jaialdian, Getxophoto jaialdian, Museo Würth La Rioja museoan eta Bilboko Alondegiko Guerrilla Girls taldearen erakusketaren irekieran. Haren saioetan *adult pop*, *nu disco* eta azkenaldiko rocka askotariko musika-doinuekin nahasten ditu lotsarik gabe; ondorioz, edozein adinetako festa dira.

Martxoaren 13ko gauean, **10:00etatik 01:00era**, Guggenheim Bilbao Museora bertarutzen direnek Niki de Saint Phalle-ri eskainitako erakusketaz eta Film & Video aretoan ireki berri den Kimsooja artista korearraren *Hariaren ibilbideak* instalazioaz gozatzeko aukera izango dute.

Sarrera (18 urtetik gorakoak): 13 € publiko orokorra eta 9 € Museoaren Lagunak. Ikusle kopuru mugatua. Salgai txarteldegian eta www.guggenheim-bilbao.es.webgunean.